ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
Aniztasuna, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko
Elkartasun Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO
Dirección de Diversidad, Convivencia y
Solidaridad Intergeneracional

AGINDUA, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILBURUARENA, TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO LEGE-AURREPROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DUENA.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren 2026ko abuztuaren 12ko Aginduaren bidez, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Lege-aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera eman zitzaion.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. artikuluak ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren Agindu baten bidez hasiko dela.

Halaber, horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, eta dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, testu artikulatuak prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldez aurreko onarpena izan beharko du.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Lege-aurreproiektua.

Bigarrena.- Lege-aurreproiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea, Hasteko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko

ORDEN DE LA CONSEJERA DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO POR LA QUE SE APRUEBA, CON CARÁCTER PREVIO, EL ANTEPROYECTO DE LEY DE IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN.

Mediante la Orden del 12 de agosto de 2026, de la consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, se inició el procedimiento de elaboración del anteproyecto de ley de igualdad de trato y no discriminación

El artículo 12 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del consejero o consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen.

Asimismo, el artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, y antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado deberá contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la orden de inicio.

En virtud de lo anteriormente expuesto,

RESUELVO:

Primero. Aprobar, con carácter previo, el Anteproyecto de Ley de Igualdad de Trato y No Discriminación.

Segundo.- Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del Anteproyecto de Ley, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de Inicio y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del

6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorriz, Legea onartzeko ondorioetarako.

Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, a los efectos de la aprobación de la Ley.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean. / En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

NEREA MELGOSA VEGA - 16301484G

Firmado digitalmente por NEREA MELGOSA VEGA - 16301484G
Fecha: 2026.11.12 09:50:15 +01'00'

Nerea Melgosa Vega
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua /
Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO LEGE-AURREPROIEKTUAREN AURRETIAZKO OINARRIZKO TESTUA 2026 04 22

AURKIBIDEA

Hitzaurrea

I. TITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

2. artikulua. Helburua.

3. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.

4. artikulua. Aplikazio-eremu objektiboa.

5. artikulua. Definizioak.

II. TITULUA. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea sustatzea.

6. artikulua. Ekintza positiboak.

7. artikulua. Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako plana.

8. artikulua. Instituzio publikoen arteko elkarlana.

9. artikulua. Gobernuz kanpoko erakundeekiko elkarrizketa.

10. artikulua. Estatistikak, azterlanak eta administrazio-dokumentazioa.

11. artikulua. Dirulaguntza publikoak eta kontratazioa.

12. artikulua. Prestakuntza.

III. TITULUA. Tratu-berdintasunerako eskubidearen bermeak eta babes-, tutoretza- eta erreparazio-neurriak.

13. artikulua. Diskriminazioaren biktimak artatzea, laguntzea eta informatzea.

14. artikulua. Desinformazioaren aurkako neurriak.

15. artikulua. Diskriminazioaren aurreko babes- eta erreparazio-neurriak.

16. artikulua. Erabateko deuseztasuna.

17. artikulua. Diskriminazioaren aurkako administrazio-tutoretza.

18. artikulua. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearen defentsa legitimatzea.

19. artikulua. Froga-zamari buruzko arauak.

IV. TITULUA. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua.

20. artikulua. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua sortzea.

21. artikulua. Antolamendua eta funtzionamendua.

22. artikulua. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuaren eginkizunak.

23. artikulua. Ikertzeko ahalmena.

24. artikulua. Biktimentzako laguntza.

25. artikulua. Gatazkak justizia errestauratiboaren bidez konpontzeko bideak.

26. artikulua. Auziak.

27. artikulua. Irispidea, irisgarritasuna eta arrazoizko egokitzapenak.

28. artikulua. Lankidetza eta elkarlana.

V. TITULUA. Gizarte zibilarekiko elkarrizketa. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseilua.

29. artikulua. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseilua sortzea.

30. artikulua. Kontseilua.

31. artikulua. Kontseiluaren izaera eta helburuak.

32. artikulua. Kontseiluburutza eta kontseiluburuordetza.

33. artikulua. Idazkaritza eta idazkaritza teknikoa.

34. artikulua. Kontseilukideak.

35. artikulua. EAEko administrazioen ordezkari diren kontseilukideak.

36. artikulua. Gizarte-eragile eta -antolakundeen ordezkari diren kontseilukideak.

37. artikulua. Kontseiluaren eginkizunak.

38. artikulua. Funtzionamendua.

39. artikulua. Dietak eta gastuak.

40. artikulua. Kode etikoa.

VI. TITULUA. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

41. artikulua. Aplikatu beharreko araubide juridikoa.
42. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.
43. artikulua. Zehapenak.
44. artikulua. Zehapen osagarriak.
45. artikulua. Zehapenak mailakatzea.
46. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak preskribatzea.
47. artikulua. Zehapen-prozedura.
48. artikulua. Erantzukizun publikoaren kasuetarako prozedura espezifikoak.
Xedapen gehigarriak.
Lehenengo xedapen gehigarria.
Bigarren xedapen gehigarria.
Hirugarren xedapen gehigarria.
Laugarren xedapen gehigarria.
Azken xedapenak.
Azken xedapenetako lehenengoa.
Azken xedapenetako bigarrena.

ZIOEN AZALPENA

Gizarte demokratiko eta aurreratu bateko herritar guztion balio, printzipio eta oinarrizko eskubideetako bat da berdintasuna, eta horrela jasotzen du Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, bai eta mota guztietako diskriminazioa debekatu ere. Egun, berdintasuna politikoki eta juridikoki aitortzen duten arau juridiko asko daude, iturri desberdinetatik etorritakoak (nazioartekoak, Europakoak, Estatukoak, erkideetakoak eta tokikoak), maila desberdinetakoak eta hartzaile desberdinei zuzendutakoak, eta gizarte-eremu askotarikoei buruzkoak. Legearen xedea da, batez ere, aitortza horren bermeak sendotzea, tratu-berdintasuna sustatzea, diskriminazioaren aurka jardutea, biktimei arreta eta erreparazioa eskaintzea, gorroto-diskurtsoak desagerraraztea eta bizikidetza bultzatzea. Legeak prebentzio-eskubidea eta edozein motatako diskriminazioa pairatu duten biktimei erreparazioa emateko eskubidea azpimarratzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoa bizikidetzarako espazioa da, eta, espazio horretan, gizarte-aniztasuna —haren adierazpen guztietan—, tolerantzia, errespetua eta bertako herritarren benetako berdintasun eraginkorra aintzat hartu eta bultzatzen dira. Dena den, aurreiritzi ideologiko larri batzuk indarrean daude oraindik, zenbaitetan diskriminazio-gertakari bihurtzen direnak, bai eta kolektibo batzuk eta haien kideak diskriminatzen dituzten testuinguru eta jokabide batzuk ere. Pertsonen duintasunaren aurreiritzi kaltegarrietan oinarri duten tratu desberdin eta okerragoak egunero ematen dira, eremu publikoan zein pribatuan.

Askotan, gizarteak ez ditu diskriminaziotzat hartzen diskriminazio-egoera horiek, ez eta egoerok pairatzen dituzten kolektiboek ere. Horren ondorioz, salaketa gutxi egiten dira, egoera eta jokabide horiek ez dira administratiboki izapidetzen, ez dira arau-haustetzat hartzen edo, kasua denean, delitutzat, eta, azkenean, normaltzat hartzen dira normalak ez izan arren.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak gizarte-arazo larri horren jakitun daude. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren maila desberdinetan, jarduera asko burutzen dira berdintasuna babesteko,

bizikidetza sustatzeko, biktimak artatzeko eta laguntzeko, hezkuntza- eta gizarte-programak sustatzeko eta antzekoetarako, bai toki- eta foru-eremuetan, bai eremu autonomikoan. Aniztasuna zaintzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko era desberdinak daude: instituzio batzuek diskriminatzeko arrazoiak hartzen dituzte aintzat, beste batzuek, berriz, kolektibo espezifikoetan zentratzen dute haien jarduna. Kopuruek erakusten dute denboran iraun duen ahalegin honen emaitzak kalitate eta seriotasun handikoak direla.

EAEko administrazioek eta gizarte zibilaren hainbat sektorek abian jarritako neurriek eta ekintzek aldeko esparrua sortu dute berdintasunaren alde eta diskriminazioaren aurka aurreratzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko politika eta egiturak egokitzeko Estatuko esparru juridikora —Tratu Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza Lortzeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integraletik abiatuta ezarri zen— eta Europako zuzenbidearen aurrerapenetara —bai Europar Batasunarena, bai Europako Kontseiluarena—.

Euskal Autonomia Erkidegoan informazioaren, plangintzaren eta estrategiaren arloko entitate eskudunen arteko sinergia ezinbestekoa da berdintasuna eta diskriminazio eza bermatuko eta sustatuko badira. Era berean, koordinazio, lankidetza eta elkarlan hori beste eskumen-eremu batzuetako estrategiekin bat burutu behar da, hau da, toki- eta foru-administrazioen estrategiekin bat eta Europan erabakitako ekimenekin bat.

Horregatik guztiagatik, neurri eta jardun berriak erabaki behar dira tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearen babesa bermatzeko eta sustatzeko, eta, ondore horretarako, arau-egitura instituzional egonkor bat sortzea proposatu behar da, behar bezalako erantzunak, egokituak eta arinak eskaini ahal izateko diskriminazio mota guztiei.

Tratu Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza Lortzeko 2022ko uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralak, Estatukoa baita, xedea du legezko esparru egokia ezartzea diskriminazio mota guztiak prebenitzeko eta ezabatzeko, bai eta alderdi hauek bultzatzea ere: politika publikoak formulatzean, exekutatzean eta ebaluatzean tratu-

berdintasunaren zeharkako aplikazioa, administrazio publikoen arteko koordinazioa eta haien eta gizarte-eragileen eta antolatutako gizarte zibilaren arteko elkarlana.

Lege horren azken xedapenetako zortzigarrenaren 14. apartatuak aurreikusten duenez, baldin eta autonomia-erkidego batek arlo horretako eskumenak baditu eta horren gaineko legea eman badu, Estatuko arauak ordezko izaera izango du; halaber, 3. artikuluak xedatzen duenez, arau horretan xedatutakoa aplikatuko da hargatik eragotzi gabe aldekoagoak diren Estatuko edo erkidegoetako araubide espezifikoak. Halaber, 15/2022 Legearen 35. artikuluak elkarlana eta lankidetza eskatzen du Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen artean, dagozkien eskumenak egikaritzean.

Euskal Autonomia Erkidegoak bere Autonomia Estatutuan (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua) bereganatutako eskumenak egikarituz egin da araudi hau. Konkretuki, 9.2 artikuluaren a) letrak EAEko botere publikoei ezartzen die «herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia» zaintzeko eta bermatzeko betebeharra, eta artikulu beraren d) letrak dio «gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko» dutela.

Bestalde, nazioarte mailan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak —Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an onartua— lehenengo artikuluan aldarrikatzen du gizaki guztiok berdinak direla duintasunari eta eskubideei begira. Gainera, Adierazpenaren 7. artikuluak aitortzen du denok berdinak garela legearen aurrean. Nazio Batuen Erakundearen esparruan ere, Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Ituna eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna aipatu behar dira, zehazki bigarren horren 26. artikulua, zeinak baitio pertsona guztiek eskubidea dutela, diskriminaziorik gabe, legearen babesa izateko.

Eremu desberdinetako diskriminazioa erabat desagerraraztea nazioarteko beste itun, adierazpen eta erabaki batzuen xedea ere bada. Horien artean, konbentzio eta adierazpen hauek daude: Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa, 1965ekoa; Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak

ezabatzeko Konbentzioa, 1979koa; Erlijioan edo sinesmenetan oinarritutako intolerantzia eta bereizkeria modu guztiak ezabatzeari buruzko Adierazpena, 1981ekoa; Haurren eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989koa, edo Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa, 2007koa. Lanaren Nazioarteko Erakundearen esparruan, berriz, erreferentzia dira berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzko arau hauek: 100 zenbakidun hitzarmena, ordainketa-berdintasunari buruzkoa, 1951koa, eta 111 zenbakidun hitzarmena, enplegu- eta okupazio-arloko bereizkeriari buruzkoa, 1958koa. Adinarekin loturik, Nazio Batuen Batzar Nagusiak adinekoen aldeko Nazio Batuen printzipioak onartu zituen 1991n, eta, besteak beste, tratu duinerako eskubidea jasotzen da bertan. Xede horren barruan ere, Giza Eskubideen Kontseiluak adinekoen giza eskubideei buruzko 21/23 Ebazpena onartu zuen 2010ean, eta haren bidez deia egin zien estatu guztiei berma dezaten gizarte-talde horretako kideek dagozkien eskubideak osotasunean eta era ekitatiboan baliatu ahal ditzaten, bai eta, horretarako, adinarekin zerikusia duen diskriminazioa ezabatzeko neurriak har ditzaten ere.

Europako Kontseiluaren eremuan, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 14. artikuluak dioenez, hitzarmenean aitortutako eskubide eta askatasunak ziurtatu behar dira, inolako bereizketarik egin gabe, batik bat arrazoi hauen ondoriozko bereizketarik egin gabe: sexua, arraza, larru-kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelako iritziak, jatorri nazional edo soziala, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondasuna, jaiotza edo beste edozein egoera. Gainera, hitzarmen horren 12. protokoloak eskubide autonomotzat jotzen du diskriminatua ez izateko eskubidea, hau da, ez dago protokoloan aitortutako beste eskubide batzuen mende.

Europar Batasuneko zuzenbidearen esparruan, Europar Batasunaren Tratatuaren 2. artikuluak xedatzen duenez, «Batasunak oinarrizko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla». Eta, gaineratzen duenez, «Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan».

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 19. artikuluak xedatutakoarekin bat, «Tratatuetako beste xedapenei kalterik egin gabe, eta Tratatuek Batasunari emandako eskumenen mugen barruan, Kontseiluak, aho batez, legegintzako prozedura berezi baten bidez eta Europako Parlamentuak onartu ondoren, sexua, arraza edo jatorria, erlijioa edo sinesteak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi dituen bereizkeriaren kontra borrokatzeko egokiak diren ekintzak onar ditzake».

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak 1. artikuluan aldarrikatzen du giza duintasuna urraezina dela, eta 21. artikuluan diskriminazio oro debekatzen du. Eta bereziki aipatzen ditu diskriminatzeko arrazoi hauek: sexua, arraza, larru-kolorea, etnia- edo gizarte-jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo sinesteak, iritzi politikoak zein beste edozein iritzi, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa. Halaber, kultura-, erlijio- eta hizkuntza-aniztasuna (22. artikulua), emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna (23. artikulua) eta desgaitasunen bat duten pertsonak integratzeko eskubidea (26. artikulua) errespetatu behar direla ezartzen du.

Europar Batasunean berdintasunaren inguruan onartutako zuzentarauek osatzen dute diskriminazioaren aurkako Europako zuzenbidearen arau-corpusa, hain zuen, zuzentarau hauek: Kontseiluaren ekainaren 29ko 2000/43/EE Zuzentaraua, tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa, arraza- edo etnia-jatorria edozein dela ere; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 5eko 2006/54/EE Zuzentaraua, gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa, enpleguaren eta okupazioaren arloan, zeinak emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan zegoen enpleguaren arloko arau-corpus zabala bateratzen baitu; Kontseiluaren azaroaren 27ko 2000/78/EE Zuzentaraua, esparru orokorra ezartzekoa tratu-berdintasunerako, enpleguaren eta okupazioaren arloan; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 7ko 2010/41/EB Zuzentaraua, jarduera autonomoa burutzen duten gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa; Kontseiluaren abenduaren 13ko 2004/113/EE Zuzentaraua, gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasuna aplikatzekoa ondasunak eta zerbitzuak, bai eta haien hornikuntza ere, irispidean izateko orduan, eta Europako Parlamentuaren eta

Kontseiluaren urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua, delituen biktimen eskubideei eta biktimak lagundu eta babesteari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena. Era berean, aintzat hartu da zer ekimen azaldu diren Kontseiluaren COM (2008) 426 azkena zuzentarau-proposamenean —pertsonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzekoa, haien erlijioari edo sinesmenei, desgaitasunari, adinari edo sexu-orientazioari erreparatu gabe—.

Halaber, komeni da kontuan hartzea Kontseiluaren 2024ko maiatzaren 7ko (EB) 2024/1499 Zuzentaraua, zeinak 2000/43/EE eta 2004/113/EE zuzentarauak aldatzen baititu eta tratu-berdintasunaren alorreko organismoei buruzko arauak ematen baititu eremu hauetan: pertsonen arteko tratu-berdintasuna, edozein dela haien arraza edo etnia; pertsonen arteko tratu-berdintasuna, enpleguaren eta okupazioaren arloan, edozein direla haien erlijioa eta sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa, eta gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasuna, gizarte-segurantzaren arloan eta ondasunak eta zerbitzuak, bai eta haien hornikuntza ere, irispidean izateko orduan. Zuzentarau horrek proposatzen du esparru indartua ezartzea tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ez izatearen alorreko organismoentzat. Zuzentarauaren oinarria Batzordearen 2018ko ekainaren 22ko (EB) 2018/951 Gomendioa da, berdintasunaren alorreko organismoen arauei buruzkoa, eta horixe hartu behar da lege hau interpretatzeko esparru gisa. Bukatzeko, kontuan hartzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko maiatzaren 14ko 2024/1500 Zuzentaraua, zeinak 2006/54/EE eta 2010/41/EB zuzentarauak aldatzen baititu eta emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren alorreko organismoei buruzko arauak ematen baititu enpleguaren eta okupazioaren arloan.

Diskriminaziorik ez izatearen printzipioa, ordenamendu juridikoaren printzipio informatzailea den heinean, loteslea da administrazio-jarduketetarako, praktika judizialetarako, botere publikoentzat eta partikularrentzat. Horren haritik, lege honek pertsona fisiko edo juridikoek diskriminaziorik ez izateko eta tratu-berdintasunerako duten eskubidea erabiltzeko modua arautzen du, botere publikoek eremu horretan duten jarduketa zuzenduko duten printzipioak zehazten ditu eta sektore publikoan nahiz eremu pribatuan diskriminazioa prebenitzeko, ezabatzeko eta erreparatzeko

neurriak ezartzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoari aitortu zaizkion eskumenekin bat.

Lege hau integrala da, izan ere, edozein motatako diskriminazioa aintzat hartzen du eta bizikidetzaren eremu diferenteak eragiten ditu, hargatik eragotzi gabe arau sektorial espezifikoagoak aplikatzea, halakorik badago, lege hau ordezkoa izango baita.

Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko arau-esparrua abian jartzeak eta tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea babestera bideratutako berme espezifikoak ezartzeak, bai eta Autonomia Erkidegoan jardungo duen Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua sortzeak ere, egoera nabarmen hobetzea ekarriko du maila desberdinetan, bai norbanakoei dagokienez —desberdinkeria eta diskriminazioa pairatzen duten eta haien prebentzioa, babesa eta erreparazioa espero duten pertsonentzat—, bai instituzioei dagokienez —eragile politikoen, enplegatuen eta zerbitzu-hornitzaileen politika eta prozeduretan—, bai gizarteari dagokionez —jokaera publikoetan, betebeharren titularren ikuspegietan eta eskubideen titularren konfiantzan—.

Lege honekin arau-tresna eraginkor bat sortu nahi da edozein pertsonak edozein eremutan pairatu dezakeen diskriminazioari aurre egiteko, eta prebentzio-, zehapen- eta erreparazio-neurriak jasotzen ditu diskriminaziorik ez izatearen aldeko zuzenbidearekin bat.

Antolamendu sistematikoaren ikuspegitik, sei tituluz osaturik dago.

I. tituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu, bai eta legearen xedea, helburua eta aplikazio-eremu subjektiboa zein objektiboa xedatu ere. Titulu horrek tratu-berdintasunaren eta diskriminatzeko debekuaren alorreko Europako eta Estatuko kontzeptuen oinarrizko definizioak ere jasotzen ditu.

II. tituluak tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea sustatzeko neurriak ezartzen ditu. Ekintza positiboei buruzko arauak jasotzen ditu, bai eta tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako planari, instituzio

publikoen arteko elkarlanari, gobernuz kanpoko erakundeekiko elkarrizketari, estatistika eta azterlanetan adierazleak txertatzeari, dirulaguntza publikoen araubideari eta kontratazio eta prestakuntzari buruzko arauak ere.

III. tituluak tratu-berdintasunerako eskubidearen bermeak arautzen ditu, eta esparru horren barruan daude babes-, arreta-, tutoretza- eta erreparazio-neurriak. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea defendatu ahal izateko legitimazioaren zehaztasunak eta froga-zamaren arauak ere jasotzen ditu.

IV. tituluak Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua sortu eta haren araubide juridikoaren funtsezko alderdiak arautzen ditu. Haren antolamenduari, egiturari, funtzionamenduari eta eginkizunei buruzko arauak jasotzen ditu, eta nabarmentzekoa da biktimentzako arreta-eredu integrala ezartzen duela. Horretaz gain, juridikoki aitortzen da ERABEREAN Sarea.

V. tituluak Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseilua sortzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan sektore horretan lan egiten duten gizarte-eragileekiko elkarrizketarako eta elkarlan instituzionalerako organo gisa.

VI. titulua arau-hausteen eta zehapenen araubideari buruzkoa da. Arau-hausteak sailkatu eta tipifikatzen dira titulu horretan, bai eta dagozkien zehapenak eta haien mailakatzea ezarri ere. Haien preskribatzeari buruzko arauak ere ezartzen dira, bai eta zehapen-prozedura eta erantzukizun publikoa dagoenerako prozedura espezifikoak ere.

Legeak hiru xedapen gehigarri ditu. Lehenengo xedapen gehigarriak Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua eratzeko modua arautzen du. Bigarren xedapen gehigarriak aurreikusten du txosten bat egin beharko dela tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza zaintzeko betebeharra urratzen duten EAEko administrazio publikoetako arau-xedapenei eta praktikei buruz. Hirugarren xedapen gehigarriak, berriz, toki-ente publikoei zehatzeko araubidea aplikatuko zaiela arautzen du.

Bukatzeko, azken bi xedapen ditu. Lehenengoak ezartzen du lege hau ordezkoa izango dela sektoreko legedi espezifikoa badago. Eta azken xedapenetako bigarrenak ezartzen du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean legea.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Xedea.*

Lege honen xedea hau da:

1. Tratu-berdintasunerako eskubidea sustatzea eta eraginkortasunez bermatzea, eta pertsonen berdintasunaren aurkako edozein jokabide ezabatzea, hau da, 3. artikuluak jasotako arrazoietan oinarritutako edozein diskriminazio mota dakarren edozein jokabide ezabatzea.

2. Pertsona fisiko edo juridikoen —publiko zein pribatuen— eskubide eta betebeharren esparrua definitzea eta arautzea; botere publikoen jarduteko printzipioak ezartzea, bai eta berdintasuna sustatu eta bermatzeko, eta sektore publikoan edo pribatuan egon daitezkeen diskriminatzeko modu guztiak —zuzenekoak zein zeharkakoak— prebenitu, ezabatu eta zuzentzeko tresnak ezartzea ere.

2. artikulua. *Helburua.*

Legearen helburua da ahalik eta modurik eraginkorrenean babestea, prebentzio- eta erreparazio-neurriak erabiliz, pertsona guztien berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea, bereziki biktimena, Euskal Autonomia Erkideagoa bizikidetzarako lurralde-entitate gisa sendotu dadin, hots, gizarte-aniztasuna —haren adierazpen guztietan—, tolerantzia, errespetua eta bertako herritarren benetako berdintasun eraginkorra aintzat hartu eta bultzatzen duen lurralde-entitate gisa. Lege hau interpretatzeko eta aplikatzeko, genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista hartuko dira aintzat.

3. artikulua. *Aplikazio-eremu subjektiboa.*

1. Ezingo da inor diskriminatu arrazoi hauetako batengatik: jaiotza, jatorri nazionala, etnia jakin batekoa izatea edo etnia jakin batekotzat jotzea, generoa, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-orientazio edo -identitatea,

genero-adierazpen eta -identitatea, sexu-ezaugarriak, asexualitatea, gaixotasuna edo osasun-egoera —fisikoa zein psikikoa—, egoera serologikoa edo patologiak eta nahasmenduak izateko predisposizio genetikoa, hizkuntza, egoera sozioekonomikoa, pobrezia, itxura fisikoa edo edozein baldintza edo inguruabar pertsonal zein sozial. Aitortzen da pertsona guztiek dutela tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea, kontuan izan gabe zein den haien nazionalitatea, adinez nagusi diren ala ez eta Euskal Autonomia Erkidegoan legezko bizilekua duten ala ez.

2. Diskriminazio horiek debekatuz, eragotzi egiten dira desabantaila faktikoan dauden pertsonak eta taldeak tratu juridiko desberdina eta okerragoa izan dezaten, baina ez dira eragozten ekintza positiboak, hots, tratu juridiko desberdin eta aldekoagoak izatea desabantaila horiek murriztu eta pertsona horien benetako berdintasun eraginkorra lortzeko baldintzak sortzeko. Ekintza positiboek ez dute indargabetzen berdintasunaren printzipioa; izan ere, printzipio horren parte dira, pertsona guztien benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko alderdiari dagokionez.

3. Lege hau pertsona fisiko eta juridiko guztiei aplikatzen zaie, sektore publikokoei zein eremu pribatukoei, bizilekua edo jardun-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoan badute, jarduketa-eremu guztietan, eta edozein dela jarduteko modua, hots, era pertsonalean, aurrez aurre eta zuzenean, sare sozialen ingurunean edo jatorria edo xedea Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan duten bitarteko telematikoen bidez.

4. artikulua. *Aplikazio-eremu objektiboa.*

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa den eremu eta arlo guztietan aplikatuko da legea, eta bereziki, baina ez bakarrik, eremu eta arlo hauetan: lana, hezkuntza, osasun-arreta, ondasun eta zerbitzuen eskaintza, herritarren segurtasuna, justizia-administrazioa, etxebizitzarako irispidea, tratu-berdintasuna publikoari irekitako establezimendu, espazio eta ikuskizunetan, komunikabide sozialak, publizitatea, Internet eta sare sozialak, adimen artifiziala, erabakiak hartzeko algoritmo eta mekanismo automatizatuak, gizarte-zerbitzuak, garraioa, kultura- eta kirol-jarduerak eta immigranteak erkidegoan gizarteratzea.

2. Aurrerapen zientifiko eta teknologikoek —besteak beste, biomedikoek, informatikoek edo neuroteknologikoek— herritar guztien eskura egon beharko dute,

bereziki tradizioz diskriminazioaren biktima izan diren gizarteko taldeen eskura, eta ezingo dute inolako segregazio sozialik sortu, indartu edo areagotu.

3. Lege honetan xedatutakoa ulertuko da hargatik eragotzi gabe 3.1 artikuluan aurreikusitako diskriminatzeko arrazoi desberdinei aurre egiteko Europako, Estatuko edo Erkidegoaren sektoreko arauetan ezarrita dauden eta aldekoagoak diren araubide espezifikoen aplikazioa.

5. artikulua. *Definizioak.*

1. Legearen ondoreetarako, diskriminaziotzat hartzen da gizartean sustraitua dagoen aurreiritzi batean oinarritutako edozein jokabide, ekintza edo ez-egite, edozein pertsona edo gizarte-talde beste baten aldean modu desberdin eta okerragoan tratatzea dakarrena, 3.1 artikuluan jasotako arrazoietako bat edo batzuk oinarri hartuta. Hauek dira lege honen 3.1 artikuluan jasotako arrazoietan oinarritutako aurreiritzien adierazpen nagusiak: matxismoa, sexismoa edo misoginia (emakumeen aurkakoa); arrazakeria (diskriminazio mota honen oinarrian daude jatorri nazionala, pertsona arrazializatua izatea edo etnia jakin batekoa izatea edo etnia jakin batekotzat jotzea, desberdintasuna eraginez eskubideei eta tratuari dagokienez); xenofobia (atzerritarren aurkakoa); LGTBIfobia (LGTBI kolektiboko pertsonen eta haien familien aurkakoa); transfobia (pertsona transen aurkakoa); ijitofobia (ijito-etniako pertsonen aurkakoa), adinkeria (adinekoen, haurren eta gazteen aurkakoa), islamofobia (erlijio musulmana duten edo halakotzat hartzen diren pertsonen aurkakoa edo Islamaren aurkakoa), antisemitismoa (etnia juduko kideen aurkakoa), kapazitismoa edo desgaifobia (desgaitasuna duten pertsonen aurkakoa) edo aporofobia (gizarte-bazterketako egoeran, egoitzetan edo baztertuak egoteko arriskuan dauden pertsonen aurkakoa), eta diskriminatzeko beste edozein modu.

2. Tratu-berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzeko, diskriminatzeko modu hauek kontuan hartzen dira:

a. Zuzeneko diskriminazioa edo tratu-diskriminazioa: pertsona batek edo bera kide duen taldeak antzeko edo pareko egoera batean dauden beste pertsona batzuek baino tratu okerragoa jasotzen duenean, jaso izan duenean edo jaso dezakeenean ematen den egoera, arrazoia 3.1 artikuluan jasotako arrazoien artean dagoela.

b. Zeharkako edo inpaktuko diskriminazioa: lege- edo kontratu-xedapen batek edo itxuraz neutroa den praktika batek —hots, lege honen 3.1 artikuluak jasotako irizpideei eragiten ez diena, itxuraz— kalte zehatza eragin diezaiokeenean egoera faktikoagatik desabantailan dagoen talde bateko kide bati edo gehiagori, beste batzuekin alderatuz, irizpide horiengatik, eta, betiere, helburu legitimo bat ez badu.
c. Jazarpen diskriminatzailea. Lege honen 3.1 artikuluak jasotzen dituen diskriminatzeko arrazoiren batengatik egindako edozein jokabide, zeinak helburu edo ondorio baitu pertsona baten edo pertsona hori kide duen talde baten duintasunaren aurka egitea eta giro larderiazkoa, etsaitasunezkoa, laidogarria, umiliagarria edo iraingarria sortzea.
d. Gorroto-diskurtso diskriminatzailea. Edozein bitartekoren bidez zabaldutako diskurtsoa, lege honen 3.1 artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik pertsonekiko intolerantzia, diskriminazioa eta indarkeria sustatu, zabaldu, bultzatu edo justifikatzen duena.
e. Lege honen 3.1 artikuluan aurreikusitako arrazoiak oinarri hartuta, diskriminazio eragitea edo horretarako agindua edo jarraibideak ematea, modu zehatz, zuzen eta eraginkorrean egiten denean beste pertsona batengan jokabide diskriminatzailea sorrarazteko.
f. Irisgarritasunik eta arrazoizko egokitzapenik ez izatea edo nahikoak ez izatea. Bai irisgarritasuna, bai egokitzapenak diskriminazioa eragozteko bermeak dira; beraz, ingurune fisiko zein soziala eta jarrera ez aldatzea edo behar den egokitzapena ez egitea diskriminatzea da, baldin eta egokitzapena egitea neurrigabeko zama ez bada enplegatzailearentzat. Irisgarritasuna prebentziozko tresna bat da eta oro har aplikatzen da; aldiz, arrazoizko egokitzapenak kasu partikularrei begira egiten dira, hain zuzen, bermatzeko ezaugarri babestuak dituzten pertsonek —adibidez, desgaitasunen bat duten pertsonek edo erlijio gutxituetako kideek— eskubide berberak dituztela eta erabil ditzaketela, gainerako guztiek dituzten baldintza berdinetan.

3. Era berean, Europako lege-eremuan onartutakoarekin bat, honelakoa izan daiteke diskriminazioa:

a. Asumitutakoa: biktimak ezaugarri babestu bat edo gehiago duela uste izatearen ondorioz eragiten den diskriminazioa, nahiz eta halako ezaugarririk ez izan.

b. Ezkutukoa: diskriminatzaileak biktimari ematen dion tratu gutxiesgarria emateko benetako arrazoiak ezkutatu edo disimulatzen dituenean eragiten den diskriminazioa.
c. Asoziaziozkoa edo akatsen ondoriozkoa: lege honen 3.1 artikuluan jasotako ezaugarri susmagarririk izan gabe eragiten den diskriminazioa, hain zuzen, diskriminatzaileak uste duelako diskriminatuak lotura estua duela ezaugarri horiek dituen norbaitekin.
d. Instituzionala: diskriminatzeko jokabidea arauetan eta prozeduretan tradizioz irmoki orokortzearen ondorioz, antolakundeak —publikoak edo pribatuak— kolektiboari zerbitzu ekitatiboa ematen ez dionean eragiten den diskriminazioa.
e. Anizkoitza edo intersekzionala: lege honen 3.1 artikuluan deskribatutako ezaugarrietako bi edo gehiago batera daudenean eragiten den diskriminazioa; kasu horretan, diskriminazio mota desberdin eta larriago bat eragiten da.
f. Sistemikoa edo egiturazkoa: instituzioen politika, arau eta praktikek iraunarazi dituzten baztertzeko patroi sistematiko eta historikoetan oinarri duen diskriminazioa, gizarte-, ekonomia- eta kultura-arloetan zaurgarriak diren taldeak baztertzen dituena; ez dira ekintza indibidual hutsak.

II. TITULUA

Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea sustatzea

6. artikulua. *Ekintza positiboak.*

Berdintasunerako eskubidea benetakoa eta eraginkorra izan dadin, botere publikoek lege honen 3.1 artikuluak ezarritako arrazoiekin loturiko ekintza positiboko neurriak hartuko dituzte, eta haiek sustatuko dituzte partikularren artean izaten diren harremanetan.

7. artikulua. *Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako plana.*

1. Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako planean, Euskal Autonomia Erkidegoan tratu-berdintasuna ziurtatzeko eta aukera-berdintasuna bultzatzeko behar diren ardatzak, ildo estrategikoak, helburuak, neurriak eta aurrekontua ezarri behar dira.

2. Eusko Jaurlaritzari dagokio Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako esparru-plana onartzea, eta Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseiluari haren jarraipena eta ebaluazioa egitea, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuaren laguntzarekin.

3. Eusko Jaurlaritzak planaren oinarrizko edukiak eta ebaluatzeko eta jarraipena egiteko sistema definituko ditu, baita ardatz estrategikoak eta neurri nagusiak ere.

4. Foru-administrazioek eta 5000 biztanle baino gehiagoko toki-administrazioek ere haien plana egin beharko dute bi urteko epean, lege hau onartzen denetik, eta Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen gidalerroekin koordinatu beharko dira plan horiek, bai diseinuari, bai jarraipen eta ebaluazioari dagokienez.

5. Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako planak lau urteko iraupena izango du. Indarraldia amaitzean, plana bete den ebaluatzeko txostena egin beharko du Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseiluak; Jaurlaritzari eta Legebiltzarrean gaiaren gaineko eskumena duen batzordeari helaraziko die txosten hori. Txosten horren emaitzak publikoak izango dira, herritar guztiok jakitun egon daitezen, eta aintzat hartuko dira dagozkion politika publikoak egitean, Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako hurrengo plana barne.

8. artikulua. *Instituzio publikoen arteko elkarlana.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, foru-aldundiak eta toki-entitateak lankidetzan arituko dira tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza txertatzeko bakoitzari dagozkion eskumenak egikaritzean eta, bereziki, haien plangintza- eta kudeaketa-tresnak egitean. Ondore horietarako, plangintza- eta kudeaketa-tresnak ezartzea ahalbidetzeko praktika onen ereduak emango dizkie Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuak instituzioei.

9. artikulua. *Gobernuz kanpoko erakundeekiko elkarrizketa.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, foru-aldundiek eta toki-entitateek elkarrizketa sustatuko dute diskriminazioaren eta intolerantziaren aurkako borrokan laguntzeko interes legitimoa duten gobernuz kanpoko erakundeekin.

10. artikulua. *Estatistikak, azterlanak eta administrazio-dokumentazioa.*

1. Botere publikoek, lege honen helburuak lortu ahal izateko, 3.1 artikuluak aurreikusten dituen arrazoiengatiko diskriminazio moten arrazoiak, zabalera, bilakaera, izaera eta ondorioak ezagutzeko aukera ematen duten adierazle, aldagai eta prozedurak sartu beharko dituzte egiten dituzten azterlan, txosten, oroitidazki eta estatistiketan, arreta berezia eskainiz genero-ikuspegiari; halaber, sexuaren, sexu-identitatearen eta adinaren arabera bereizita emango dituzte datuak, bai eta, hala badagokio, desgaitasun tipologiaren, sexu-orientazioaren, jatorri nazional edo etnia-jatorriaren eta erlijio-sinesmenen arabera ere, beste zeharkakotasun batzuen artean. Bereziki aipatu beharko dira diskriminazio anizkoitzak eta intersekzionalak.

2. Gainera, inprimakietan eta administrazio-dokumentazioan, sexuaren, sexu-identitatearen eta adinaren arabera bereizita jasoko dira datuak.

3. Ertzaintzak eta udaltzaingoek:
   a. Salaketen alderdi diskriminatzaileari buruzko datuak jaso beharko dituzte, eta segurtasunaren dagozkion estatistika-sistemetan prozesatuko; datuak publikatuko dira, datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidea gordez.
   b. Diskriminatzeko patroiak identifikatu eta ezabatu beharko dituzte, bereziki arraza-profilen erabilerarekin loturikoak.

4. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako segurtasunaren arloko sail eskudunak eta estatistikaren arloko sail eskudunak, aldian-aldian eta era koordinatuan, gai hauei buruzko estatistikak eta azterlan kualitatiboak egin edo eskatu beharko dituzte, bai eta argitaratu ere:

   a. Lege honen 3.1 artikuluak aipatzen dituen pertsonen eta taldeen aurkako erasoak, diskriminazioak, gorroto-diskurtso eta -delitu diskriminatzaileak.

b. Lege honen xedapenei jarraituz aurkeztu diren salaketak eta Legearen 4. artikuluak jasotzen dituen diskriminazio-eremuetan izandako delituengatik aurkeztu diren zigor-arloko salaketak.
c. Lege honen xedearekin lotura duten administrazio-ebazpenak eta epai judizialak, bai eta haien edukia ere, bereziki, zeharkako diskriminazioak, sistematikoak, instituzionalak, anizkoitzak eta intersekzionalak daudela probatzen dutenak.
d. Lege honen 3.1 artikuluan jasotako pertsonen eta taldeen bizi-baldintzak, zerbitzu publikoetarako irispidea eta eskubideen erabilera, bai eta diskriminazio sistemikoaren eta egiturazkoaren beste ondorio batzuk ere.

11. artikulua. *Dirulaguntza publikoak eta kontratazioa.*

1. Dirulaguntzetarako plan estrategikoetan, administrazio publikoek zehaztuko dute dirulaguntza horiek eskatzeko oinarri arautzaileek zer eremutan jasoko duten entitate eskatzaileek tratu-berdintasun eraginkorra lortzeko jarduerak egitea balioetsiko dela.
2. Administrazio publikoek, sektore publikoko kontratuen legeekin bat, kontratatzeko baldintza bereziak ezarri ahalko dituzte berdintasuna sustatzeko, eta kontratua exekutatzeko esleitzen diren pertsonen artean talde zaurgarrietako kideek parte har dezaten bultzatuko dute.
3. Legearen 47. artikuluak xedatzen duen epean, administrazio publikoek ez diete dirulaguntzarik, hobaririk edo laguntzarik emango lege honek jasotako arau-hauste astun edo oso astuna egiteagatik, administrazio-ebazpen irmo bidez, zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei, publiko edo pribatuei. Era berean, ezingo da laguntza publikorik eman lege honekin bat arau-haustetzat hartzen diren praktikak egitera tentatzea, adoretzea edo toleratzea helburu duten jarduerak egiteko. Ondore horietarako, aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunak datu-base bat sortuko du zehapenen jarraipena egiteko eta haiek betetzen direla ziurtatzeko, VI. tituluak ezarritako moduan eta epeetan.

12. artikulua. *Prestakuntza.*

Entitate publikoek, haien eskumenen eremuan, aintzat hartuko dute tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza aztertzea eta aplikatzea langileak hautatzeko prozesuetan eta haien prestakuntzan, hasierakoan nahiz iraunkorrean. Arreta berezia jarriko da diskriminazio-egoeretan funtsezko diren agente guztiengan, besteak beste, hauengan: maila guztietako hezitzaileak, osasun-arloko agenteak, gizarte-gaien arlokoak, informatika zerbitzuetakoak, segurtasun indar eta kidegoetakoak eta justizia-administrazioaren zerbitzura ari diren langileak.

III. TITULUA

Tratu-berdintasunerako eskubidearen bermeak eta babes-, tutoretza- eta erreparazio-neurriak.

13. artikulua. *Diskriminazioaren biktimak artatzea, laguntzea eta informatzea.*

Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuak diskriminazioaren biktimei —gorroto-diskurtsoen biktimak barne— arreta espezializatua, diziplina anitzekoa eta pertsonalizatua emateko protokoloa onartu beharko du, gehienez ere urtebeteko epean, Zerbitzua eratzen denetik. Legearen 15.6 artikuluak xedatu bezala, arreta horren barruan izango dira biktimen eskubide eta bermeei buruzko informazio guztia; aholkularitza juridikoa; behar den laguntza, kasua bada, psikologikoa, sanitarioa edo soziala; jokabide diskriminatzailea berehala gelditzeko beharrezkoak diren neurriak, eta berehala edo gerora gerta daitezkeen eskubide eta berme horien urraketen aurreko prebentzioa. Biktimak artatzeko protokoloak arreta berezia eskainiko die Internetetik eta sare sozialetatik datozen berdintasunaren aurkako erasoei.

14. artikulua. Desinformazioaren aurkako neurriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, haien eskumenak egikaritzean, benetako informazioa transmititzen dela bermatzeko neurriak hartuko dituzte, diskriminazio-iturri izan daitezkeen desinformazioa eta gezurrak eragozteko.

15. artikulua. *Diskriminazioaren aurreko babes- eta erreparazio-neurriak.*

1. Diskriminazioaren aurreko babesa beteko bada, hura antzemateko metodo edo tresna nahikoak baliatu behar dira, prebentzio-neurriak hartu behar dira eta diskriminazio-egoerak amaitzeko neurri egokiak artikulatu behar dira.
2. Aurreko apartatuan aurreikusitako babesa emateko betebeharrak urratzeak administrazio-erantzukizuna ekarriko du, kasua denean, zigor-arlokoa edo zibila ere izan daitekeena, eragin daitezkeen kalteengatik, eta leheneratzea eta kalte-ordaina eskatu ahal izango dira, biktimen erabateko erreparazio eraginkorra lortu arte.
3. Diskriminazio-gertakari baten aurrean, lege hau betearazteko ardura duten agintaritzek neurri egokiak hartu beharko dituzte egitateak errepikatu ez daitezen bermatzeko, bereziki, diskriminatzailea administrazio publikoa den kasuetan.
4. Behin diskriminazioa egon dela egiaztatu ondoren, kalte morala dagoela ulertuko da, eta hori balioesteko, kasuaren inguruabarrak, diskriminazio anizkoitza egon izana eta benetan eragindako lesioaren larritasuna hartuko dira aintzat.
5. Halaber, eragindako kaltearen erantzule izango dira ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonak edo enplegatzaileak, baldin eta diskriminazioa, erasoa barne, antolakuntzaren edo zuzendaritzaren eremuan egiten bada eta artikulu honetako lehenengo apartatuak jasotako betebeharrak bete ez badira.
6. Administrazio publikoek, zuzenean edo espezializatutako gizarte-entitateen bidez, benetako arreta integrala eta eraginkorra eman behar diete lege honen 3.1 artikuluan aurreikusitako diskriminazioaren biktimei. Arreta horren barruan egongo dira aholkularitza, laguntza juridikoa, sanitarioa eta psikologikoa, kasua denean, bai eta erreparazioa eta errekuperazio integralak ematera bideratutako gizarte-arloko neurriak ere.

16. artikulua. *Erabateko deuseztasuna.*

Erabat deusezak dira lege honen 3.1 artikuluak jasotzen dituen arrazoietako edozeinengatik diskriminatzaileak diren edo diskriminazioa eragiten duten xedapen, egintza edo negozio juridikoen klausulak.

17. artikulua. *Diskriminazioaren aurkako administrazio-tutoretza.*

1. Bere eskumenak egikarituz ari den agintaritza publiko batek lege honetan aurreikusten diren diskriminazio kasuetako baten susmoa duenean, eskuduna bada, dagokion administrazio-prozedura abiarazi beharko du, eta kasuaren inguruabarrak ikertzeko behar diren neurriak adostu eta diskriminazioa desagerrarazteko neurri egokiak eta arrazoizkoak hartu ahalko ditu; eskuduna izan ezean, aplikatu beharreko legearen arabera eskuduna den administrazioari jakinarazi beharko dio.

2. Administrazioak lege honetan aurreikusitako diskriminazio-egoera baten inguruko iritzia eman behar duenean, alderdi hauek izan ahalko dira administrazio-prozedurako interesdun, baldin eta eragindako pertsonak edo pertsonek baimena eman badiete: sindikatuak, langile autonomoen elkarte profesionalak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak, unibertsitateak eta haien helburuen artean giza eskubideen defentsa eta sustapena duten erakundeen elkarteak eta legez eratutako erakundeak. Baimen hori ez da beharko, eragindakoak ugari badira edo zenbat diren zehaztea zaila bada, hargatik eragotzi gabe bere burua eragindakotzat jotzen duenak prozeduran parte hartzeko aukera izatea.

3. Bigarren apartatuan aipatzen diren entitateek betekizun hauek bete beharko dituzte:

a. Dagokion prozedura abiarazi baino bi urte lehenago, gutxienez, legez eratuak izatea, salbu eta entitateko kideak defendatzeko ekintzak burutzen badituzte.
b. Beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean garatzea.

18. artikulua. *Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearen defentsa legitimatzea.*

Hargatik eragotzi gabe eragindako pertsonen legitimazio indibiduala, alderdi politikoak, sindikatuak, langile autonomoen elkarte profesionalak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak, unibertsitateak eta haien helburuen artean giza eskubideen defentsa eta sustapena xede duten erakundeen elkarteak eta legez eratutako erakundeak legitimatuta egongo dira, legedi prozesalaren arabera, afiliatuen, bazkideen edo haien zerbitzuetako erabiltzaileen eskubideak eta interesak defendatzeko prozedura judizial zibiletan, administrazioarekiko auzietakoetan eta lan-arlokoetan, berariaz eman bazaie horretarako baimena eta lege honen 17.3 artikuluak jasotzen dituen betekizunak betetzen badituzte.

19. artikulua. *Froga-zamari buruzko arauak.*

1. Legedi prozesalak aurreikusitakoaren arabera, alderdi demandatzaileak edo interesdunak diskriminazioa alegatzen duenean eta hura egon izanaren zantzu funtsatuak aurkezten dituenean, demandatuari edo diskriminazio-egoera egozten zaionari dagokio justifikazio objektibo eta arrazoizko bat aurkeztea, behar bezala frogatua, hartutako neurriei eta haien proportzionaltasunari buruz.
2. Lehenengo paragrafoan xedatutakoaren ondoreetarako, dena delako organo judizial edo administratiboak, ofizioz edo alderdiak eskatuta, horren inguruko txostena eskatu ahalko die berdintasunaren arloko organismo publiko eskudunei ——besteak beste, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuari—.
3. Lehenengo apartatuan ezarritakoa ez da aplikatuko zigor-arloko prozesuetan eta zehatzeko administrazio-prozeduretan, ez eta ikastetxeetako antolamendu-, bizikidetza- eta diziplina-arauen babesean izapidetutako prozedura eta neurrietan ere.

IV. TITULUA

Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua.

20. artikulua. *Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua sortzea.*

1. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua sortzen da. Haren misioa da arlo horretako politika publikoak babestea eta sustatzea.
2. Eusko Jaurlaritzan aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunaren mende egongo da Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua.

21. artikulua. *Antolamendua eta funtzionamendua.*

1. Lege honen xedapenek diotena hargatik eragotzi gabe, Zerbitzuaren mendeko egitura organikoa, haren barne-funtzionamendurako araubidea, langileen araubidea, ekonomia- eta aurrekontu-araubidea, bai eta haren funtzionamenduari eta jarduteko

araubideari buruz behar diren gainerako kontuak ere, lege honen garapenaren ondorioz arautuko dira.

2. Aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunaren mendeko zuzendaria izango da Zerbitzuko zuzendaria.

3. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuaren mende artikulatuko dira Zerbitzuaren eginkizunetan lagunduko duten administrazio-arloak.

22. artikulua. *Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuaren eginkizunak.*

1. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuaren xedea da benetako era eraginkorrean bermatzea betetzen direla diskriminazioren debekua eta tratu-berdintasuna. Helburu hori betetzeko, eginkizun hauek izango ditu Zerbitzuak:

a. Biktimak artatzea, zerbitzu espezializatuak eta orientabideak eskainiz lege honek ezarritako arrazoietako edozeinengatik diskriminatuak izan diren pertsonei.
b. Esku hartzeko programak garatzea biktimarioekin, erreparazioa ematera bideratuak, eta jarrerak eta portaerak aldatzera.
c. Gatazkak konpontzeko bide egokiak bilatzea, alderdiek berariaz adieraziz gero ados daudela, bitartekaritzaren, adiskidetzearen eta arbitrajearen bidez.
d. Ikerketak abiaraztea, ofizioz edo alderdiak eskatuta, bereziki larriak edo nabarmenak diren ustezko diskriminazio-egoeren inguruan, lege honen 3.1 artikuluak aurreikusitako arrazoiekin zerikusia dutenak, salbu eta zigor-arloko arau-hauste izan daitezkeenak, kasu horretan Zerbitzuak ikerketa eten beharko baitu eta Ministerio Fiskalari edo agintaritza judizialari igorri beharko baitio.
e. Auzitegien aurrean jardutea, lege honen 26. artikuluarekin bat, tratu-berdintasunaren printzipioa egikaritzearekin zerikusia duten administrazio-zuzenbidearen eta zuzenbide zibilaren prozedura judizialak abiaraziz, hargatik eragotzi gabe ekintzak onartzeari buruzko arauek diotena.
f. Gaiarekin zerikusia duten zehapen-espedienteak bideratzea, VI. tituluak ezartzen duen arau-hausteen eta zehapenen araubidearekin bat.

g. Legeek aurreikusitako eskubideen zabalkundea egitea herritar guztien artean, arreta berezia jarriz diskriminatuak izateko arriskua duten pertsona eta taldeen artean.
h. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuaren jardueren urteko txostena egitea. Eusko Legebiltzarreko dagokion batzordean aurkeztuko da eta publikoa izango da, gaian interesa duten pertsona, instituzio, entitate eta elkarte guztien eskura jartzeko, bai eta herritar guztien eskura ere.
i. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-organoak koordinatzea tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza prebenitzeko eta sustatzeko neurriak jasotzen dituzten aldizkako estatistika, txosten eta azterlanei dagokienez, bai eta txosten eta azterlan horien zabalkundea egitea ere. Horretarako, Zerbitzuak, bere jardueren berri emateko eta bere azterlanak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoan estatistikaren arloko organo eskudunek berdintasunaren eta diskriminaziorik ez izatearen inguruan lortutako datu estatistikoak eskuratu ahalko ditu, betiere, datu pertsonalak babesteko arauek diotena aintzat hartuta.
j. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztiak eta plangintza-tresnak Estatuko Administrazio Orokorrarekin koordinatzea sistematikoki, konferentzia sektorialean, bai eta beste organo batzuetan ere —adibidez, Gorroto Delituen aurkako Borrokarako Bulego Nazionalean—, nolanahi ere, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen araudiak xedatutakoa aintzat hartuta.
k. Bere ekintzak Estatuaren barruko berdintasun-organoekin koordinatzea eta haiekin lankidetzan aritzea.
l. Legez edo arauz ematen zaion beste edozein eginkizun.

23. artikulua. *Ikertzeko ahalmena*.

1. Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza ustez urratu dituzten egitateak ikertu ahalko ditu Zerbitzuak, lege honek xedatu bezala. Salaketaren bat egon delako edo Zerbitzuaren beraren ekimenez abiarazi ahal izango da ikerketa.
2. Alderdiek era aktiboan lagundu beharko dute ikerketan, eta lan hori egiteko eskatzen zaizkien frogak eta dokumentuak eskuratu beharko dizkiote Zerbitzuari.

Informazioa emateko prest ez egotea diskriminazio-zantzutzat hartuko da, eta dagozkion ondorio prozesalak izango ditu froga-zamaren gainean.

24. artikulua. *Biktimentzako laguntza.*

1. Zerbitzuak aurrez aurre edo telematikoki jaso ahal izango ditu diskriminazio-salaketak. Eusko Jaurlaritzak toki-enteekin adostu ahalko du haiek aurrez aurre jaso ditzatela beren lurralde-eremuan izan litezkeen diskriminazio-jokabideekin lotutako salaketak, eta 48 ordu pasa aurretik Zerbitzura bidal ditzatela.
2. Zerbitzuak laguntza emango die ustezko biktimei; lehenengo eta behin, informazioa emango die aplikatzekoa den esparru juridikoari buruz —haren egoera espezifikorako egokia den aholkularitza barne—, Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuei buruz eta horiekin lotura duten alderdi prozesalei buruz, bai eta errekurtsoak jartzeko bideei buruz ere, ekintza judizialak abiarazteko aukera barne.
3. Horretaz gain, aplikatu beharreko konfidentzialtasun-arauei eta datu pertsonalen babesari buruzko informazioa ere emango die biktimei Zerbitzuak, eta beste organismo edo erakunde batzuetan laguntza psikologikoa edo beste mota batekoa eskatzeko aukera dutela ere jakinaraziko die.
4. Zerbitzuak hamar egun balioduneko epean jakinaraziko dio salatzaileari ea salaketa artxibatuko den edo zein den Zerbitzuak jarduteko proposatzen duen modua.

25. artikulua. *Gatazkak justizia errestauratiboaren bidez konpontzeko bideak.*

1. Zerbitzuak gatazka konpontzeko neurri egokia bilatzeko aukera eskaini ahalko die alderdiei. Zerbitzuak berak edo beste entitate eskudun batek zuzendu ahalko du neurria, Euskal Autonomia Erkidegoko legeekin eta praktikarekin bat; azken kasu horretan, Zerbitzuak oharrak egin ahalko dizkio dena delako entitateari.
2. Esparru horren barruan, negoziaziora, bitartekaritzara, adiskidetzera edo arbitrajera jo ahalko da, alderdiak ados badaude, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearen urraketei heltzeko, zigor- edo lan-arlokoak direnak izan ezik.
3. Prozesu mota horretan parte hartzeak ez du eragotziko alderdiek, beren aldetik, organo jurisdikzionaletara jotzeko eskubidea egikaritu ahal izatea.

26. artikulua. *Auziak.*

1. Zerbitzuak auzitegien aurrean jardun ahalko du tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ez izatearen printzipioaren egikaritzearekin zerikusia duten gaietan, hargatik eragotzi gabe Estatuko arauek ekintzak onartzeari buruz diotena.
   a. Auzitegien aurrean jarduteko eskumenak barne hartzen du hartutako ebazpen bat betetzeari edo haren berrikusketa judizialari buruzko prozeduretan agertzea;
   b. prozedurak abiaraztea edo haietan parte hartzea, biktima baten edo batzuen izenean edo haiek laguntzen, kasu horretan biktimek laguntza onartu beharko dutela.
2. Era berean, Zerbitzuak bere izenean abiarazi ahalko ditu prozedura judizialak, zehazki, Zerbitzuak hautatutako gaiekin loturiko egiturazko diskriminazio sistematikoari aurre egiteko, errepikakorrak, larriak edo argibide juridikoa behar dutenak direnean.

27. artikulua. *Irispidea, irisgarritasuna eta arrazoizko egokitzapenak.*

1. Zerbitzuak irisgarritasuna bermatuko die desgaitasunen bat duten pertsonei, berdintasunean iritsi ahal izan daitezen berdintasunaren alorreko organismoek eskaintzen dituzten zerbitzu eta jarduera guztietara, barnean direla biktimentzako laguntza, salaketen izapidetzea, adiskidetasunezko adostasunerako mekanismoak, informazioa eta argitalpenak eta sentsibilizazio-jarduerak.
2. Horretarako, irisgarritasun unibertsala ziurtatuko du, dimentsio fisikoan, sentsorialean, kognitiboan, komunikatiboan eta digitalean, eta behar diren arrazoizko doikuntzak eta laguntza-neurriak hartuko ditu, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean eta irisgarritasunaren arloan aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera. Era berean, zerbitzuak erabiltzen dituen kanal elektroniko, aplikazio, egoitza elektroniko eta webgune guztiek irisgarritasun digitalaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko dute.
3. Zerbitzuaren jarduerak dohain eskainiko dira.

28. artikulua. *Lankidetza eta elkarlana.*

1. Zerbitzuak beste entitate publiko eta pribatuekiko lankidetza sustatuko du tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko, haien lana oinarritzeko eta haien jarduketa koordinatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean dauden entitateekin, Estatukoekin eta nazioartekoekin lankidetzan arituko da Zerbitzua. Arartekoarekiko lankidetza eta elkarlanari arreta berezia eskainiko zaio, eta koordinatzeko eta jarraipena egiteko bi bilera egingo dira harekin urtean zehar; lehenengoan, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuaren lanerako plana aurkeztuko zaio. EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearekiko elkarlanari ere arreta berezia eskainiko zaio, sexua edo generoa dela-eta ematen den diskriminazioari dagokionez; izan ere, haren zeregin nagusia da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta indarkeria matxistaren prebentzioan lan egitea.

2. Gobernuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta toki-enteek behar duen elkarlana emango diote Zerbitzuari, haien eginkizunak betetzeak eta haien akordioak exekutatzeak horrela eskatuz gero, hargatik eragotzi gabe baimen judiziala lortu beharra eskatzen denean. Halaber, Zerbitzuari kontsulta egin ahalko diote lege honekin zerikusia duten gaien inguruko politikak eta arauak idatzi behar dituztenean. Zerbitzuak berak, ofizioz, gomendioak bidali ahalko dizkie botere publikoei, eta haiek ezarri izanaren jarraipena egin.

3. Lege hau garatzeko araudiaren bidez erregulatuko da nola eta zer prozeduraren bitartez ziurtatuko den Zerbitzuaren jardueretan parte hartzen dutela eragindako interes sozialak ordezkatzen dituzten antolakundeek, besteak beste, EAEko eremu honetako hirugarren sektoreko entitateek, sindikatu- eta enpresa-erakundeek edo unibertsitateek.

4. Eusko Jaurlaritzan aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko eskumena duen sailak lankidetza-gune bat bultzatu eta jarriko du, Eraberean Sarea izenekoa, arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatiko eta sexu-orientazio edo -identitateagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurka borrokatzen duten gizarte-ordezkari eta -erakundeekin batera. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuarekin eta Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseiluarekin lankidetzan aritzea da helburua, diskriminazioaren biktimei laguntzeko, herritarrak sentsibilizatzeko eta gertakari mota horien zifra ezkutua azaleratzeko.

V. TITULUA

Gizarte zibilarekiko elkarrizketa. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseilua

29. artikulua. *Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseilua sortzea.*

1. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseilua sortzen da, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ez izatearen eremuan lan egiten duten gizarte-eragileekiko elkarrizketarako eta elkarlan instituzionalerako organo gisa.
2. Eusko Jaurlaritzan aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko eskumenak dituen sailari atxikitzen zaio.

30. artikulua. *Kontseilua*.

1. Kontseilua osatzen dute kontseiluburutzak, kontseiluburuordetzak, idazkaritzak, idazkaritza teknikoak eta kontseilukideek.

2. Kontseiluak Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta lan-batzordeak izango ditu jarduteko. Kontseiluaren Osoko Bilkurari dagokio Batzorde Iraunkorra eta la-batzordeak sortzea eta haien osaera eta eginkizunak zehaztea.

3. Kontseiluaren Osoko Bilkura eta batzordeak osatzerakoan, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua lortzeko neurri egokiak hartuko dira.

4. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseiluak, bere funtzionamenduan eta herritarrekiko harremanetan, bermatuko du hizkuntza-eskubideak errespetatzen direla eta euskara eta gaztelania Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial gisa erabiltzen direla. Pertsonak hizkuntza ofizialetako edozeinetan jarri ahal izango dira harremanetan Kontseiluarekin, eta Kontseiluaren jakinarazpenak, administrazio-komunikazioak, bilerak, jarduketak eta dokumentazioa

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen indarreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira.

31. artikulua. *Kontseiluaren izaera eta helburuak.*

5. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseilua organo aholku-emailea da eta gizarte zibilarekin elkarrizketatzeko eta elkarlanean aritzeko organo gisa eratzen da.

6. Haren misioa da tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza babestu eta sustatzea lege honek jasotzen dituen eremuetan.

32. artikulua. *Kontseiluburutza eta kontseiluburuordetza.*

1. Aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunaren sailburua izango da kontseiluburua, eta berak aukeratutako beste pertsona bati eskuordetu ahalko dio kontseiluburutza, aldi baterako. Kontseiluko gizarte-antolakundeetako kideen eta gizarte-eragileen artean aukeratuko da kontseiluburuordea. Kontseiluburua ordeztuko du, hura ez dagoenean.
2. Kontseiluburuaren eginkizunak dira Kontseiluaren ordezkari gisa aritzea eta haren bozeramailea izatea.
   a. Bileretarako deialdia egitea eta gai-zerrenda ezartzea, gutxienez, bilera izan baino 48 ordu lehenago, eta kontseilukideek egin ditzaketen eskaerak aintzat hartuta.
   b. Bileretan buru izatea, horiei amaiera ematea eta eztabaidak moderatzea.
   c. Ebazpen-proposamenak egitea Kontseiluko Osoko Bilkurari.
   d. Bozketa ebaztea, berdinketa egonez gero, kalitateko botoa erabiliz.
   e. Kontseiluaren aktei eta erabakien ziurtagiriei oniritzia ematea, bai eta erabakiak helaraztea egoki irizten diren antolakunde eta instituzioei ere.
   f. Kontseiluak berak erabakitzen dituen eginkizunak egikaritzea.

33. artikulua. *Idazkaritza eta idazkaritza teknikoa.*

1. Aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunak proposatutako funtzionarioa izango da Kontseiluko idazkaria.

2. Idazkariaren eginkizunak hauek dira:

   a. Bilkuretan parte hartzea; hitza izango du, baina botorik ez.

   b. Bilkuretako aktak jasotzea eta egiaztagiriak ematea hartutako erabakiei, irizpenei, bertaratzeari eta abarrei buruz.

   c. Kontseiluburuak aginduta, bilkuren deialdia egitea.

   d. Karguak berez dakarren beste edozein.

3. Aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunari dagokio idazkaritza teknikoaren eginkizuna betetzea, eta administrazio-lanak eta Osoko Bilkuraren, batzordeen eta lan-taldeen lanak erraztea izango da haren eginkizun nagusia.

4. Bai idazkariak, bai idazkaritza teknikoko kideek eztabaidetan parte hartu ahalko dute, eta hitza izango dute, baina botoa ezingo dute eman.

34. artikulua. *Kontseilukideak.*

1. Kontseiluburu, idazkari eta idazkari teknikoarekin batera, 36 kidek osatzen dute Kontseilua.

   a. Hemezortzik kargu hauetako bat izango dute: sailburuorde, zuzendari, alkate, zinegotzi edo antzekoa; Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta foru- eta toki-administrazioen ordezkariak izango dira.

   b. Beste hemezortzi tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ez izatearen eremuan lan egiten duten gizarte-eragile eta -antolakundeen ordezkariak izango dira, bai eta gai horrekin zerikusia izan dezaketen beste kontseilu, sare eta foroetako ordezkariak ere.

2. EAEko administrazio publikoetako kontseilukideen eta haien ordezkoen izendapena idatziz jakinaraziko zaio idazkariari. Honela izendatuko dira:

   a) Eusko Jaurlaritzako sailen ordezkari izango diren kontseilukideak haien sailburuek izendatuko dituzte.

   b) Foru-aldundien ordezkari izango diren kontseilukideak haien instituzioen funtzionamendu-arauei jarraikiz izendatuko dira.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko udalen ordezkari izango diren kontseilukideak Euskal Autonomia Erkidegoan gehiengoa duen EAEko udalen elkarteak izendatuko ditu.

3. Gizarte-eragileen eta -antolakundeen ordezkari izango direnen izendapena.

a) Gizarte-eragile eta -antolakundeen ordezkariak kontseiluburuaren proposamenez izendatuko dira, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ez izatearen eremuan lan egiten duten eragile eta antolakundeei kontsulta egin ondoren. Kontseilukide titular bakoitzeko ordezko kide bat izendatu beharko da.

b) Kontseilu, sare eta foroetako ordezkariak beraiek izendatuko dituzte, bakoitzak bere ordezkariak, kontseilu, sare eta foro bakoitza osatzen duten gizarte-eragile eta -antolakundeetako kideen artean; titular eta ordezko bana izendatu beharko dute, eta kontseiluko idazkariari idatziz jakinarazi.

4. Kontseilukideei dagokie:

a) Bilkuretarako deialdia gutxienez 48 ordu lehenago jasotzea, gai-zerrendarekin eta bertan azaltzen diren gaiei buruzko informazioarekin batera.
b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.
c) Botoa emateko eskubideaz baliatzea, boto partikularra ematea eta botoaren esanahia eta arrazoiak azaltzea.
d) Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzea.
e) Zein lan-batzordetarako izendatu dituzten, horko kide izatea.
f) Galderak eta eskaerak egitea.
g) Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren ezohiko bilerak eskatzea.
h) Kontseiluaren eskumeneko gaiei buruzko proposamenak aurkeztea Kontseiluburutzari, Osoko Bilkurari edo Batzorde Iraunkorrari.
i) Osoko Bilkuraren, Batzorde Iraunkorraren eta lan-taldeen bilkuretara joateagatik dagozkien zerbitzuagatiko kalte-ordainak jasotzea.
j) Kontseilukide izateak berez dakartzan gainerako eginkizun guztiak betetzea.

5. Horrez gainera, Osoko Bilkurak eta batzordeek landuko dituzten gaietan aditu direnak ere deitu ahal izango dira bilkuretara joateko, baldin eta egokitzat jotzen bada kontseiluburuak hala irizten diolako edo Osoko Bilkuraren gehiengoak

hala proposatu duelako; aditu horiek hitza izango dute, baina botorik ez, eta informazioa edo aholkularitza emateko soilik bertaratu ahal izango dira.

35. artikulua. *EAEko administrazioen ordezkari diren kontseilukideak.*

1. Honela banatuko dira 33.1.a) artikuluan aurreikusitako kontseilukideak:
   a. Bi kontseilukide, aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   b. Kontseilukide bat, hezkuntzaren arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   c. Kontseilukide bat, osasunaren arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   d. Kontseilukide bat, justiziaren arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   e. Kontseilukide bat, kulturaren arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   f. Kontseilukide bat, herrizaingoaren arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   g. Kontseilukide bat, enpleguaren arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   h. Kontseilukide bat, administrazio publikoen arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   i. Kontseilukide bat, kontsumoaren arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   j. Kontseilukide bat, etxebizitzaren arloko sail eskudunaren ordezkari gisa.
   k. Kontseilukide bat, EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearen ordezkari gisa.
   l. Hiru kontseilukide, lurralde historikoetako hiru foru-aldundien ordezkari gisa.
   m. Hiru kontseilukide, EUDELen ordezkari gisa.

2. Kontseilukide instituzionalak karguan arituko dira legegintzaldiak edo haietako bakoitzaren agintaldiak irauten duen bitartean, salbu eta karguari berariaz uko egiten badiote edo ordezkatzen duten administrazioak berariaz ezeztatzen baditu.

36. artikulua. *Gizarte-eragile eta -antolakundeen ordezkari diren kontseilukideak.*

1. Honela banatuko dira 33.1.b) artikuluan aurreikusitako kontseilukideak:
   a. Hamabi kontseilukide, lege honen jardun-eremuan lan egiten duten gizarte-eragile eta -antolakundeen ordezkari gisa.
   b. Sei kontseilukide, kontseilu, sare eta foro hauen ordezkari gisa: Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua; ADOS Aholkularitza Batzordea, komunitate islamikoekin

elkarlanean aritzekoa; Euskadiko Erlijioen Kontseilua, eta Eraberean Sarea. Kontseilu, sare eta foro bakoitzak bere ordezkariak izendatuko ditu haiek osatzen dituzten gizarte-eragile eta -antolakundeetako kideen artean.

2. Kontseiluburuak zehaztuko du, hasiera batean, zenbat ordezkari izango dituen kontseilu, sare eta foro bakoitzak. Beste kontseilu batzuetako ordezkariak batu ahalko dira Osoko Bilkurak hala erabakiz gero.

3. Gizarte-eragile eta -antolakundeetako kideen kontseilukide karguak lau urte iraungo du, salbu eta karguari berariaz uko egiten badiote edo berariaz ezeztatzen badute; agintaldiaren amaieran kontseilukideak berriro hautatu ahalko dira, izendapen-prozedura berari jarraituz. Nolanahi ere, kontseilukideek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, harik eta haien ordezkoak karguaz jabetu arte.

37. artikulua. *Kontseiluaren eginkizunak.*

1. Kontseiluaren eginkizunak hauek dira:

a) Kontsulta-organo gisa, aholkua eta informazioa ematea tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea erabiltzeari modu espezifikoan eragin diezaioketen euskal instituzioen —eremu publikoan— eta antolakundeen —eremu pribatuan— ekimen eta erabakiei buruz.

b) Kontseiluaren ohiko funtzionamendua garatzeko eta arautzeko araudiak eta xedapenak onartzea lege honen esparruan, eta, kasua denean, batzorde iraunkor bat eta legean esleitutako eginkizunak betetzeko behar diren lan-batzordeak onartzea.

c) Kontseiluaren eta Eraberean Sarearen funtzionamendurako araudia onartzea.

d) Batzorde Iraunkorraren eta lan-batzordeen sorrera, osaera eta eginkizunak onartzea.

e) Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako planen jarraipena eta ebaluazioa egitea, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuaren laguntza teknikoarekin.

f) Azterlanak, txostenak, oroitidazkiak eta estatistikak egitea, barnean hartuta 3.1 artikuluak aurreikusten dituen arrazoiengatiko diskriminazio

moten arrazoiak, zabalera, bilakaera, izaera eta ondorioak ezagutzeko aukera ematen duten adierazle eta prozedurak, , erreferentzia berezia eginez diskriminazio anizkoitzei eta intersekzionalei.

g) Irizpena ematea lege hau garatuko duten xedapen orokorren proiektuei buruz, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubideari eragiten dion beste edozein proiekturi buruz ere.

h) Irizpena ematea lege honen esparruan garatzen den edozein estrategia, plan edo programari buruz, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubideari eragiten dion beste edozein estrategia, plan edo programari buruz ere.

i) Gomendioak egitea, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubideari buruz Eusko Jaurlaritzako instituzioek egindako kontsulten inguruan.

2. Kontseiluaren eginkizunen genero-ikuspegia, ikuspegi feminista eta ikuspegi intersekzionala.

a. Eginkizun horiek guztiek genero-ikuspegia txertatuko dute zeharka, eta, gainera, esku-hartze maila guztietan ikuspegi intersekzionala ezarriko dela bermatuko dute.

38. artikulua. Funtzionamendua.

1. Osoko Bilkurak urtean bi ohiko bilkura egingo ditu gutxienez. Kontseiluburuak egingo ditu ohiko bilkura horietarako deialdiak, eta ezohiko bilkuretara ere dei dezake, justifikatuta dagoela uste badu edo hala eskatzen badute Osoko Bilkurako kideen herenek.
2. Gutxienez 48 ordu lehenago egin beharko dira Osoko Bilkuraren bilkuretarako deialdiak, eta bilera non, noiz eta zer ordutan egingo den eta gai-zerrenda zein den adierazi beharko da deialdiaren idazkian.
3. Osoko Bilkura balio osoz eratzeko quoruma kideen gehiengo osoa izango da, lehenengo deialdian. Quoruma nahikoa ez bada, bigarren deialdian eratuko da Osoko Bilkura; dena dela, erabakiak balio osoz hartzeko, nahitaezkoa izango da kideen herena bertan izatea. Quorum bera aplikatuko zaio Batzorde Iraunkorrari.

4. Osoko Bilkurak eta Batzorde Iraunkorrak gai-zerrendako gaiak eztabaidatuko dituzte. Erabakiak botoen gehiengoarekin hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, kontseiluburuaren botoak erabakiko du.

39. artikulua. Dietak eta gastuak.

1. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseiluaren funtzionamendu-gastuak aniztasunaren eta elkarbizitzaren arloko sail eskudunaren aurrekontu-kredituen kontura ordainduko dira.

2. Kontseiluaren bilkuretara joateak eskubidea emango die 36. artikuluak jasotako pertsonei erabakitzen diren zenbatekoak jasotzeko, dieta gisa; edonola ere, beti bete beharko dira Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua eta indarrean dagoen gainerako araudia.

40. artikulua. Kode etikoa

1. Kode etiko batek arautuko ditu Kontseiluaren jarduketak; Kontseiluaren lehenengo osoko bilkuran onartuko da kode hori. Kode etikora adskribatu behar dira nahitaez Kontseilua osatzen duten kide eta entitate guztiak.

VI. TITULUA
Arau-hausteen eta zehapenen araubidea

41. artikulua. *Aplikatu beharreko araubide juridikoa.*

1. Lege honen eremuan zehatzeko ahala egikaritzeak bat egingo du lege hauetan jasotako printzipioekin eta prozedura-arauekin: Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legea.

2. Aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunaren mendeko Aniztasunaren Zuzendaritzari dagokio lege honetan aurreikusitako zehatzeko ahala egikaritzea, hargatik eragotzi gabe organo eskudunek antolakunde bakoitzaren barruan izan ditzaketen diziplina-ahalmenak.

42. artikulua. *Arau-hausteen sailkapena.*

1. Berdintasunaren eta diskriminaziorik ez izatearen arloko arau-hausteak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.
2. Honako hauek dira arau-hauste arinak:
   a. Tratu iraingarria edo diskriminatzailea sustatu edo eragin dezaketen adierazpen, esamolde edo leloak zabaltzea edo halako ikur edo enblemak erakustea espazio publiko edo pribatuetan.
   b. Lege honek agindutakoa betetzeko Zerbitzuak burutzen dituen ikuskatzeko zereginak ez erraztea edo neurri batean uko egitea haren ikerketa-zereginetan Zerbitzuarekin elkarlanean aritzeari.
   c. Lege honen eta hura garatzen duen araubidearen xedapenak ez betetzeagatik irregulartasun formaletan erortzea jokatzen den moduan jokatzeagatik.
   d. Edozein pertsonarentzat diskriminazio-ondorioak dituen beste edozein portaera edo jarduketa, baldin eta astun edo oso astun gisa sailkatu ezin bada.
3. Honako hauek dira arau-hauste astunak:
   a. Lege honen 5.2 artikuluaren a) eta b) letretan definitutako kontzeptuen arabera diskriminazio zuzena edo zeharkakoa eragiten duten ekintza edo ez-egiteak.
   b. Pertsona edo talde bat diskriminatzeko abiapuntu izan eta mehatxua, iraina, arbuioa, mespretxua, desinformazioa edo gezurrak eragin ditzaketen adierazpen, mezu edo esloganak zabaltzea iragarki publikoetan edo sare sozialetan.
   c. Ondasun publiko edo pribatuak kaltetzea diskriminatzeko asmoarekin.
   d. Eduki diskriminatzailea duten material, produktu edo liburuak merkaturatzea.
   e. Negozio juridikoetan, diskriminazioa dakarten klausulak txertatzea.
   f. Prestazioetara edo zerbitzuetara iristeko prozeduretan diskriminazio-alborapen izan daitezkeen algoritmoak sortu edo txertatzea, emaitza diskriminatzaileak lortzeko.

g. Prestazioak edo ondasun eta zerbitzuetarako irispidea ukatzea diskriminazioaren ondorioz.
h. Egitezko tratu txarra ematea pertsona bati, lesiorik eragin gabe, diskriminazioaren ondorioz.
i. Lege honen aurreikuspenak betetzeko eskumenak dituen administrazio-organo eskudunak formulatutako administrazio-errekerimendu espezifiko bat —eskaera formala ez dena— ez betetzea.
j. Administrazio-ebazpen irmo batez zehatuta egonik, urtebeteko epean, hirugarrenez edo gehiagotan egitea arau-hauste arin bat.

4.- Honako hauek dira arau-hauste oso astunak:

a. Lege honen 5.3.e) artikuluan definitutakoaren arabera diskriminazio anizkoitza diren ekintzak edo ez-egiteak.
b. Diskriminatzeko edozein modu sustatzen duten pertsonak edo taldeak baliabide teknikoez edo ekonomikoez hornitzea.
c. Izaera diskriminatzailea duen edozein ekitaldi publiko egitea, hain zuzen, diskriminatzailea dena bertan tratu-berdintasunaren aurka egiten edo pertsonen duintasuna urratzen delako, intolerantzia-, gorroto- edo indarkeria-jokabideak gauzatzen edo sustatzen direlako edo edozein motatako diskriminazioa akuilatzen delako.
d. Diskriminatzeko edozein moduk dakartzan indarkeriazko portaerak.
e. Langileak hautatzeko, enplegurako irispidean diskriminatzaile izan daitezkeen irizpideak aplikatzea.
f. Presio handia egitea agintari edo kargu publikodun bati, agintaritzaren agente bati, funtzionario bati edo enplegatu publiko bati, lege honek eta hura garatzeko araudiak xedatutako neurriak egikaritzeko dagozkion administrazio-ahalekin loturik, baldin eta egitateekin frogatu ahal izan bada.
g. Hiru arau-hauste astun edo gehiago egitea, baldin eta aurreko bi urteko epean ustezko arau-hauslea zehatua izan bada, administrazio-ebazpen irmo bidez, bi arau-hauste astun egiteagatik.

43. artikulua. *Zehapenak.*

Lege honek jasotzen dituen arau-hausteak zehatzeko, isun hauek ezartzen dira:

a. Arau-hauste arinak: 300 eta 10.000 euro arteko isuna.

b. Arau-hauste astunak: 10.001 eta 40.000 euro arteko isuna.
c. Arau-hauste oso astunak: 40.001 eta 500.000 euro arteko isuna.

44. artikulua. *Zehapen osagarriak.*

1. Diskriminazioa administrazioaren bulegoetan edo komunikabide publiko batean —plataforma birtualak barne— egin bada, zehapen-espedientea ebatziko duen organoak gertakaria izan zen espazio berean irain-ordain adierazpena egitera behartu ahalko ditu egoeraren erantzuleak.
2. Arau-hauste astunak egiteagatik, zehapen-espedientea ebatziko duen organoak, dagokion isunaz gain, zehapen osagarri hauetako bat edo gehiago ezarri ahalko du:
   a. Laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko debekua, gehienez ere urtebetekoa.
   b. Sektore publikoko edozein enterekin kontratatzeko debekua, gehienez ere urtebetekoa.
3. Arau-hauste oso astunak egiteagatik, zehapen-espedientea ebatziko duen organoak, dagokion isunaz gain, zehapen osagarri hauetako bat edo gehiago ezarri ahalko du:
   a. Laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko debekua, gehienez ere bi urtekoa, zeina bost urtera arte luzatu ahalko baita berrerortzea edo errepikatzea egonez gero, bai eta jada aitortu diren laguntzak edo dirulaguntzak osotasunean edo zati batean ezeztatzea ere.
   b. Sektore publikoko edozein enterekin kontratatzeko debekua, gehienez ere bi urtekoa.
3. Arau-hauste arinagatik ezarritako zehapenaren ordez edo osagarri gisa, zehapen-espedientea ebatzi behar duen organoak beste zehapen hauek ezarri ahalko ditu, zehatutako pertsona ados badago: arau-hausleak ordaindu gabeko lankidetza ematea hezkuntza-jardueretan, eragindako kalteei erreparazioa emateko zereginetan edo diskriminazioaren biktimak artatzekoetan; prestakuntza-ikastaroak egitea, edo arau-hauslea tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ez izatearen inguruan kontzientziatzea helburu duen beste edozein neurri alternatibo.

45. artikulua. *Zehapenak mailakatzea*.

1. Lege honen arabera ezarritako zehapenen xedea da diskriminazioa prebenitzea, diskriminatzeko asmoa kentzea, erreparazioa ematea eta diskriminazioak eragin dituen edo eragin ditzakeen aurreiritziak zuzentzea, eta arau-haustea eragin duen egitatearen larritasunarekiko proportzio egokian mailakatu behar dira. Zehapenak gutxieneko mailan, maila ertainean eta gehieneko mailan aplikatuko dira, irizpide hauen arabera:

a. Arau-haustea nahita egina izatea.
b. Eragindako kalteen larritasuna eta haien izaera.
c. Arau-hausteak sortu duen arrisku-egoera iraunkorra edo iragankorra izatea.
d. Eragindako pertsonen kopurua, arau-hausteen oihartzun soziala eta jardunen zabalkunde-maila.
e. Diskriminazio anizkoitza edo intersekzionala eta bigarren mailako biktimizazioa.
f. Arau-haustean izan den esku-hartze maila.
g. Diskriminazio-jarduketa edo -portaerei buruzko ohartarazpenak eta aurretiazko gomendioak behin eta berriro ez betetzea.
h. Arau-hausteak sortu ahal izan duen onura ekonomikoa.
i. Zigortutakoak salatzailea edo prozesuan lagundu dutenak derrigortzea edo haien aurkako errepresaliak hartzea.
j. Eragindako kalteari erreparazioa ematea norbere ekimenez, zehatzeko administrazio-prozeduraren edozein unetan, ebazpena oraindik eman ez bada.
k. Arau-hauste batek, ezinbestean, beste arau-hauste bat edo batzuk egitea dakarrenean, arau-hauste astunenari dagokion zehapena ezarriko da.

2. Nolanahi ere, diruzko zehapenak ezartzerakoan, aurreikusi egin beharko da arau-hausleari ez dakiola onuragarriago gerta tipifikatutako arau-hausteak egitea, hautsitako arauak betetzea baino.

3. Arau-hauslea agintaria, agintaritzaren agentea, funtzionarioa edo enplegatu publikoa bada, zehapena maila gorenekoa izango da.

46. artikulua. *Arau-hausteak eta zehapenak preskribatzea.*

1. Arau-hauste arinak hamabi hilabetera preskribatuko dira; astunak, hiru urtera, eta oso astunak, lau urtera, guztiak arau-haustea egin den momentutik kontatuta.

2. Lege honen babespean ezarritako zehapen arinak hamabi hilabetera preskribatuko dira; astunak, hiru urtera, eta oso astunak, lau urtera, guztiak administrazio-ebazpen irmotik kontatuta.

47. artikulua. *Zehapen-prozedura.*

1. Hargatik eragotzi gabe sektoreko legediak ezarritako zehapen-araubide espezifikoak, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuak du tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ez izatearen arloko arau-hauste administratiboekin loturiko zehapen-espedienteak abiarazteko eta izapidetzeko ahala, bai eta dagozkion zehapenak ezartzekoa ere. Baldin eta organismo espezifiko horrek, izapidetze-fasean zehar, uste badu beste administrazio publiko bati dagokiola araua hautsi duen ustezko jokabide hori zehatzeko ahala, hari jakinarazi eta dagokion espedientea helaraziko dio.
2. Salaketa baten ondorioz abiarazten bada prozedura, salatzailea babesteari buruzko legeen arabera hartu behar diren neurriak hartuko ditu Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuak.
3. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuak uste badu arau-hausteek zigor-arloko legeak urratzen dituztela, organo judizial eskudunari edo Ministerio Fiskalari jakinarazi beharko dio, eta zehapen-prozedura etengo da, epai irmoa eman edo jarduketak artxibatuko direla edo haiek abiaraztea bidegabea dela erabaki arte.
4. Behin ebazpen judiziala jakinarazi eta gero, baiestekoa bada, bukatutzat emango da zehapen-prozedura. Ebazpenak jasotzen badu arau-hausteak zigor-arloko legeak edo erantzukizunekoak urratzen ez dituela, zehapen-prozedura berrabiarazi ahalko da, eta bide judizialean egiaztatu diren egitateak lotesleak izango dira Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuarentzat. Prozedura judiziala bidean dagoen bitartean, administrazioak kautelazko neurriak hartu ahalko ditu kalte handiagoak ekiditeko.
5. Eusko Jaurlaritzako aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunaren mendeko zuzendaritzak, bidezkoa bada, zehapen-ebazpena eman beharko du 6 hilabeteko epean, prozedura abiarazi zenetik, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuak hartutako ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

48. artikulua. *Erantzukizun publikoaren kasuetarako prozedura espezifikoak.*

1. Lege honetan tipifikatutako arau-hausteen inguruko zehapen-espedientean froga-hastapena ekartzen bada eta harengandik ondorioztatu badaiteke arau-haustearen erantzukizuna agintari edo kargu publikodun batena, agintaritzaren agente batena, funtzionario batena edo enplegatu publiko batena dela, administrazio-organo eskudunak, hori jakin bezain laster, bidezko diren behin-behineko neurriak hartu beharko ditu diskriminazio-egoerarekin amaitzeko.
2. Aurreko apartatuak jasotzen duen egoera ematen denean, administrazio-organo eskudunak, egokia den zehapen-prozedura bideratzeaz gain, aplikatu beharreko legediarekin bat bidezkoa den diziplina-prozedura abiarazi behar du, administrazio publikoetako langile diren ustezko erantzuleei dagokienez.
3. Lege honen arabera bideratu den zehapen-prozedura baten ebazpenak agintari edo kargu publikodun bati edo administrazio publikoen zerbitzura ari den langile bati egozten badio arau-haustearen erantzukizuna, ondare-erantzukizunari buruzko prozedura abiarazi beharko du, ofizioz, dagokion administrazioak. Prozedura horretako zehapen-ebazpenean frogatutzat eman diren egitateak lotesleak izango dira administrazioarentzat.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo xedapen gehigarria. *Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua eratzea.*

1. Legea indarren jartzen denetik urtebeteko epean, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzua abian jarriko da, eginkizunak, entitateak, organismoak eta zehazten diren administrazio-zerbitzuak txertatuz, Ogasun Sailak eta Funtzio Publikoaren Sailak baimena eman ondoren.
2. Legea indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko sail eskudunaren ekimenez, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuaren egitura, antolamendua eta

funtzionamendua arautzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak onartuko ditu Jaurlaritzak.

Bigarren xedapen gehigarria. *Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza zaintzeko betebeharra urratzen duten EAEko administrazio publikoetan indarrean dauden arau-xedapenei eta praktikei buruzko txostena.*

1. Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuak, eratu eta bi urteko epean, txosten zabala eta integrala aurkeztu beharko du legezko arau-xedapen eta erregelamenduzkoetan oraindik ere tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearen aurkakoak diren alderdiei buruz, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan lege honekin bat ez datozen administrazio-praktikei buruz ere.
2. Txosten hori Legebiltzarrera eta Eusko Jaurlaritzara bidaliko da, kasua denean, lege honek xedatutakoaren araberakoak ez diren araudien aldaketa sustatzeko edo egokiak ez diren administrazio-praktikak zuzentzeko.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Zehatzeko araubidea toki-enteei aplikatzea.*

1. Toki-enteei aplikatuko zaie lege honek xedatutakoa, hargatik eragotzi gabe udalerriek zehatzeko ahala izatea, baldin eta lege honek xedatutako ustezko diskriminazioak berariaz arautu badituzte lege honek ezarritako parametroekin bat.
2. Lege honek arautzen duen zehatzeko ahala eskuordetzeko eskatu ahalko dute toki-enteek; eskaera onartuz gero, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Zerbitzuarekin koordinatuta egikaritu beharko dute.

Laugarren xedapen gehigarria.

Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Kontseilua eratzeko bilkura egingo da.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Sektoreko legeen lehentasuna*

Sektoreko lege espezifikoak lehentasuna izango du lege honen xedapenean aurrean.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

TEXTO PRELIMINAR BASE DEL ANTEPROYECTO DE LEY DE IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN 2026 04 22

ÍNDICE

Preámbulo

TÍTULO I. Disposiciones generales

Artículo 1. Objeto.

Artículo 2. Finalidad.

Artículo 3. Ámbito subjetivo de aplicación.

Artículo 4. Ámbito objetivo de aplicación.

Artículo 5. Definiciones.

TÍTULO II. Promoción del derecho a la igualdad de trato y no discriminación.

Artículo 6. Acciones positivas.

Artículo 7. Plan para la igualdad de trato y la no discriminación

Artículo 8. Colaboración entre instituciones públicas.

Artículo 9. Diálogo con las organizaciones no gubernamentales.

Artículo 10. Estadísticas, estudios y documentación administrativa.

Artículo 11. Subvenciones públicas y contratación.

Artículo 12. Formación.

TÍTULO III. Garantías del derecho a la igualdad de trato y medidas de protección, tutela y reparación

Artículo 13. Atención, apoyo e información a las víctimas de la discriminación.

Artículo 14. Medidas contra la desinformación.

Artículo 15. Medidas de protección y reparación frente a la discriminación.

Artículo 16. Nulidad de pleno derecho.

Artículo 17. Tutela administrativa contra la discriminación.

Artículo 18. Legitimación para la defensa del derecho a la igualdad de trato y no discriminación.

Artículo 19. Reglas relativas a la carga de la prueba.

TÍTULO IV. El Servicio Vasco de Igualdad de Trato y No Discriminación

Artículo 20. Creación del Servicio Vasco de Igualdad de Trato y No Discriminación.

Artículo 21. Organización y funcionamiento.

Artículo 22. Funciones del Servicio Vasco de Igualdad de Trato y No Discriminación.

Artículo 23. Facultades de investigación.

Artículo 24. Asistencia a las víctimas.

Artículo 25. Medios de solución de controversias por la vía de la justicia restaurativa.

Artículo 26. Litigios.

Artículo 27. Acceso, accesibilidad y ajustes razonables.

Artículo 28. Cooperación y colaboración.

TÍTULO V. Diálogo con la sociedad civil. El Consejo Vasco de Igualdad de Trato y No Discriminación.

Artículo 29. Creación del Consejo Vasco de Igualdad de Trato y No discriminación.

Artículo 30. El Consejo.

Artículo 31. Naturaleza y fines del Consejo.

Artículo 32. Presidencia y vicepresidencia.

Artículo 33. Secretaría y Secretaría técnica.

Artículo 34. Vocales del Consejo.

Artículo 35. Vocales representantes de la Administración Vasca

Artículo 36. Vocales representantes de agentes y organizaciones sociales.

Artículo 37. Funciones del Consejo.

Artículo 38. Funcionamiento.

Artículo 39. Dietas y Gastos.

Artículo 40. Código Ético.

TÍTULO VI. Régimen de infracciones y sanciones.

Artículo 41. Régimen jurídico aplicable.

Artículo 42. Clasificación de las infracciones.

Artículo 43. Sanciones.

Artículo 44. Sanciones accesorias.

